

7.- Proposamenak.

Lehiaketan parte hartzeko proposamenak Bergarako Udaletxeko Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunetik kontatzen hasita **8 egun naturaleko** epean, goizez, 9.00etatik 13.00era bitartean.

Lizitatuzaileek gutunazal itxi batean aurkeztuko dituzte proposamenak, ondorengo idatzi honekin: "Labegaraieta Udal Polikiroldegiko udal instalazioei erantsitako tabernaren zerbitzuaren ustiapenerako eta Labegaraietako Udal Polikiroldegiaren kontrolerako lehiaketan parte hartzeko proposamenak". gutunazal horren barruan A eta B gutunazalak sartuko dira.

"B" gutunazalean proposamen ekonomikoa sartuko da, ondorengo ereduari jarraituz:

"Izen abizenak:

_____ :
Bizilekua

N.A.N.

zk.a: _____

Noren ordezkaritzan:

Bergarako Udalak "Labegaraieta" Udal Polikiroldegiari erantsitako tabernaren ustiapena eta polikiroldegiaren eta inguruko instalazioen kontrola egiteko deitu duen lehiaketaren baldintzen berri izanda, horiek betetzeko konpromisoa hartzen duela, baldintza juridiko eta ekonomiko-administratiboak eta adjudikazio erabakiaren ondorioz sortzen diren gainerakoak betez, eta ezargarri zaion legezko araudia ere betez. Hala balegokio, honekin batera doan agirian adierazitako Pleguko baldintzekiko hobekuntzak proposatuz eta urteko.....eurotan (BEZ barne).

Bergaran, 2008ko.....

Sinadura

- Eskaintza ekonomikoarekin batera ondorengo dokumentuak aurkeztuko ditu:
 - o Zerbitzuaren gestiorako proiektua.
 - o Eskaini beharreko zerbitzuarekin erlazionatuta eskatzaileak egin dituen lanen memoria, behar bezala egiaztatuta.

"A" gutunazalean, "kontratatzeko gaitasuna eta solbentzia" izenburupean, ondorengo hauek sartuko dira:

- a) Nortasuna egiaztatzeko eskuduntza eta agiriak, behar bezala askietsiak.

Nortasun juridikoa ondoren zehazten den eran egiaztatuko da:

- Enpresa pertsona juridikoa izanez gero, Merkataritza Erregistroan inskribatutako eraketa edo aldaketaren eskritura eta Identifikazio Fiskaleko zenbakia aurkeztuz.

- Norbanakoa aurkezten bada, NANA aurkeztuz.

- Inoren izenean aurkeztu edota proposamena sinatzen dutenek, horretarako eskuduntza dutela adierazten duen ahalorde notariala aurkeztu beharko dute. Enpresa pertsona juridikoa izanez gero, eskuduntzak Merkataritza Erregistroan inskribaturik agertu beharko du.

- Eskaintza-egileak Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Testu Bateratuko 20. artikulua jasotako debeku kasuetan ez dagoela adierazten duen bere erantzukizunpeko aitortpena, administrazio agintari, notario publiko edo baimendutako erakunde profesional baten aurrean egina.

- Udal Diruzaintzan behin-behineko fidantza jarri dela egiaztatzen duen agiria.

- Betebehar fiskaletan eta Gizarte Segurantzakoetan egunean dagoela adierazten duen zinpeko aitortpena.

Lehiatzaile bakoitzak proposamen bakar bat aurkeztu ahal izango du eta norbaitek bat baino gehiago aurkeztuko balu, denak atzera botako dira.